

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure proiektuaren helburua, jendeak txakurren kaka jasotzeko tresnen alokairu zerbitzua izatea da.

Gaur egun aurkitzen dugun arazoetako bat, parkeetan, zelai-guneetan... txakur kakak aurkitzen ditugula da. Hau, deserosoa izan daiteke esate baterako, ume batekin jolastera doan guraso batentzat. Arazo hau konpontzeko beharra argi ikusten da; baina batzuetan, txakur kakak jasotzea, nekeza eta ez higienikoa izan daiteke. Gainera, adineko pertsonak eta arazo fisikoak dituztenek, arazo bereziak izan dezakete kaka jasotzeko orduan.



Horregatik, ZitzTool izeneko zerbitzuak, arazo hau konpontzeko irtenbidea eskaintzen du: txakur kaka jasotzeko praktikoa eta merkea den modu bat. Garbitzea erraza izatea ahalbidetuko duen tresna kutxatiletan gordeta egongo da eta txakurraren jabeak, tresna erabiliz, modu higieniko eta praktikoa batean jasoko du kaka eta berriz gordeko du egokitzen zaion kutxatilan, tresna etxera eramaten ibili gabe.